



## “Zer egin behar dugu telebistan agertzeko, biluztu?”

Reyes Carrere | Akaba Bera Bera

“Lepoan hartu ta segi aurrera...”

SUSTRAI COLINA

Argazkia: Dani Blanco

**Irratian entzun berri dut: “Emakumezkoen eskubaloian...”.**

Eskubaloia da, ezta? Zergatik ez dute esaten gizonezkoen eskubaloia? Zergatik eskubaloia entzutean denoi etortzen zaigu gizonezkoena? Bada garaia hiztegia limatzen hasteko!

**Utzidazu kazetari guay-arena egin eta gaiari buruz galdetzen.**

Emakumea naizelako beti galdera horiei erantzutera kondenatuta nago? Entrenatzailea naiz eta zergatik ez dit inork taktikaz edo estrategiaz galdetzen? 25 urte daramatzagu gauza bera esaten eta ez da ezer aldatu.

**Tira, zu jokalarari izatetik entrenatzaile izatera pasa zara, Itxakokoek Champions-eko finala jokatu berri dute...**

Eta ez dute zuzenean telebisatu! Nork dauka horren ardura? Non daude politikariak? Itxako Champions-eko finala jokatzen ari zen bitartean Asobal ligako partida arrunt bat eman zuten. Diskriminazio hutsa da!

**Segi, segi...**

Zer dago Champions-eko final baten gainetik? Zer egin behar dugu telebistan agertzeko, biluztu? Badakigu hori eginda biharko portada denak gureak lirakekeela, baina ulertuko duzunez, gure lanarengatik atera nahi dugu medioetan.

**Nik mutilek baino emaitza hobeak daukazuela ulertzen dut.**

Bai, baina kirola egiten hasten den neskato batek zer eredu dauka? Nor bezalakoa izan

nahi du? Zein da bere ispilua? Ronaldo, Nadal, Alonso, Gasol, Lorenzo Urios, Messi... Medioentzat ikusezinak garenaz, eredu guztiak gizonezkoak dira.

**Ez esan Mourinhoren txolopoteekin egiten duzunik amets...**

Gurea frustrantea bada, beraiena ikuskizun hutsa da, futbolaren *Aquí hay tomate*. Mouri-nhok oso lan interesgarria egiten du, baina zergatik ez dio inork horretaz galde-tzen?

**Orain ere kazetarien errua!**

Ikuskizunaren parte direla jakiteaz gain, denek dakite zerk mugitzen duen dirua. Mourinho eta antzeko kexatiak gure aulkietan jarriko nituzke. Egin dezatela orain arteko lan eskerga erabateko indiferentzian.

**Eskerrak egoarentzat entrenatzaileak partida bat irabazi dezakeen!**

Ajedrezean bezala piezak mugitzen dituzu, baina pieza bizidunak dira, eta beren erabakiak hartzen dituzte. Piezak zuzen kokatuta ere eurek ematen dizute garaipena, baina piezak oker mugitzen badituzu ez dago zereginik.

**Emaitzek dena estaltzen dutela esan behar nizan, baina...**

Emaitza onek, talde barruko indar korronteak baretzeaz gain, egonkortasuna ematen diote klubari. Hori bai, irabaztean ez duzu dena ondo egiten, ezta galtzean dena gaizki ere. ■